



LASARTE-ORIAKO UDALAREN OSOKO BILKURARI

DEKLARAZIO INSTITUZIONALA DIRU-SARREREN BERME-ERRENTAREN IGOERAREN GAINEAN

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak, bere 20. artikuluan, Diru-sarrerren Berme-Errentaren zenbatekoa finkatzeaz ari delarik, erreferentzia argia dakar Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren gainean.

Eusko Jaurlaritzak oraindik orain egin dituen deklarazioetan jakinarazi du legeak jasotzen duen erreferentzia hori aldatu egingo dela, prestazio horren igoera Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) neurrietara ekartzeko.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan (EHAE) 64.000 familiak baino gehiagok jasotzen dute gaur egun Diru-sarrerren Berme-Errenta; arautegiak berak aitortzen du herritarren eskubidea dela, eta argi adierazten du, zenbatekoa finkatzeko, zer erreferentzia hartu behar duen.

Zentzu horretan, eta arautegiari eta eskubideon subjektu diren herritarrei zor zaien errespetutik begiraturik, uste dugu ez dagoela arrazoirik Eusko Jaurlaritzak hartu duen erabakia hartzeko, ez baitu sostengurik, ez legez, ez gizalegez.

Horregatik, Ahal Du Lasarte-Oria Puede-k proposamena luzatzen dio Udalaren Osoko Bilkurari, erabaki eta akordio hauek har ditzan:

1. Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lanbide arteko Gutxieneko Soldatak 2017an izango duen igoera, %8koa, aplikatu diezaiela Diru-sarrerren Berme-Errenta jasoko duten pertsoneri, eta egin dezala 2017ko urtarrilaren 1eko data erreferentziaz hartuz, eta Gizarteratzeko eta Diru-sarrerren Bermerako abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarriak dituen zenbatekoak egokituz.

Lasarte-Oria, 2017ko urtarrilaren 24an.

Izenpetua: Arkaitz Naya